



DIRULAGUNTZAK:

# Euskara Munduan

Euskara. Kultura. Mundura.

## Nazioartean euskararen irakaskuntza sustatzen

Etxepare Euskal Institutuaren lan-ildo nagusietako bat da euskararen irakaskuntza, ikasketak eta erabilera mundu osoan sustatzea. Dirulagunza honen bidez euskararen ezagutza bultzatu nahi da mundu osoko euskal giza koletibitateen artean. Horretarako, munduko euskal etxeetan ematen diren eskolak diruz laguntzen dira.

- Euskara eskolen funtzionamendu gastuak laguntzen dira diruz: irakasleen pertsonal-gastuak, gastu didaktikoak, alokairuak, komunikazioak, hornidurak, etab.
- Dirulaguntzak esleitzeko prozedura lehiarik gabeko konkurrentzia da.



### Nork eska ditzake dirulaguntzak?

Eusko Jaurlaritzaren Euskal Etxeen erregistroan inskribatuta egon eta datuak egunean dituzten munduko edozein herrialdetako Euskal Etxeek eta Euskal Etxeen Federazio eta Konfederazioek eska ditzakete dirulaguntzak.

## Eskaera epea

Dirulaguntzak eskatzeko epea urteko azken hiruhilekoan ireki ohi da. Eskaerak postaz, edo aurrez aurre, Etxepare Euskal Institutuan edo Zuzenean zerbitzuaren bidez, egin daitezke.

Dirulaguntzen eskaera epe zehatza, beste data garrantzitsu batzuk, eta argibide guztiak [www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus) webgunean aurki ditzakezu.



## Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua da nazioartean euskara eta euskal kultura eta sorkuntza sustatu eta ezagutzera ematea, eta hauen bidez, beste herrialde eta kulturekin harreman iraunkorrik eraikitzea.

Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatu, eta sortzaile, artista eta kultur eta sektoreetako profesionalen mugikortasuna bultzatzen dugu, baita euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragileekin elkarlana sustatzen dugu eremu kultural eta akademikoan. Horretan guztian estuki egiten dugu lan Euskadiaren kanpo ordezkaritzekin.

### Etxepare Euskal Institutua

Tabakalera  
Andre zigarragileen plaza, 1  
20012 Donostia / San Sebastián  
T. +34 943 023 400  
[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)





SUBVENCIONES:

# Euskara Munduan



Euskara Kultura Mundura.

## Promoviendo internacionalmente la enseñanza de euskera

Una de las principales líneas de trabajo de Etxepare Euskal Institutua es la promoción de la enseñanza, el aprendizaje y el uso del euskera en todo el mundo. Con esta subvención se busca fomentar el conocimiento del euskera entre las colectividades vascas de todo el mundo. Para ello, ayudamos las clases que se imparten en centros vascos (euskal etxeak).

- Se subvencionan los gastos derivados de las clases de euskera: gastos de personal docente, gastos didácticos, alquileres, comunicación, suministros, etc.
- El procedimiento de adjudicación de las subvenciones es de concurrencia no competitiva.



### ¿Quién puede solicitar las subvenciones?

Pueden solicitar la subvención aquellos Centros Vascos-Euskal Etxeak de cualquier país inscritas en el Registro de Euskal Etxeak del Gobierno Vasco y que tengan sus datos actualizados, así como las Federaciones y Confederaciones de Centros Vascos-Euskal Etxeak.

## Plazo de Solicitud

El plazo de solicitud de esta convocatoria suele abrirse en el último trimestre del año. Las solicitudes se pueden llevar a cabo mediante correo postal o presencialmente, en Etxepare Euskal Institutua o a través del servicio Zuzenean.

El plazo de solicitud específico de la convocatoria, así como otras fechas importantes y toda la información sobre las subvenciones se puede consultar en [www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)



## Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua es una entidad pública. Nuestro fin es promover y dar a conocer internacionalmente el euskera, la cultura y la creación vascas, y construir relaciones duraderas con otros países y culturas a través de ellas.

Para ello fomentamos actividades artísticas de calidad, y apoyamos la movilidad de creadores/as, artistas y profesionales de los sectores culturales, así como la enseñanza del euskera y de la cultura vasca. Fomentamos, asimismo, la colaboración con agentes internacionales tanto en el ámbito cultural como en el académico. En todo ello trabajamos en estrecha colaboración con las delegaciones de Euskadi en el exterior.

### Etxepare Euskal Institutua

Tabakaleria  
Andre zigarragileen plaza, 1  
20012 Donostia / San Sebastián  
T. +34 943 023 400  
[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)

